

## 2020ko uztailaren 24ko Mahai Negoziatzailea

Pasa den ostiralean Haurreskolak Partzuergoko gerentearekin eta pertsonal buruarekin bildu ginen sindikatuok Eibarren. Bileraren gai bakarra landu zen: 2020ko esleipenak. Salatu beharra dugu, berriz ere, Eusko Jaurlaritzako ordezkaria ez zela bilerara agertu.

Bileran, orain arte jasotako informazioaz gain (egutegia), esleipena baldintzatuko duten datuak jaso genituen: haurreskolaz haurreskola hurren matrikulazio datuak, eskaini daitezkeen mugimenduak, haurreskola bakoitzaren egoera lanpostu kopuruari dagokionez eta hauetan mugituak izan daitezkeen hezitzaile kopurua. Orain arte eman dizuegun informazioan jaso bezala, gogoratu behar dugu aurtengo esleipenak langile finko eta LEP artekoentzat mugimenduak gauzatzeko besterik ez direla egingo (ez da lanpostu berririk eskainiko).

Enpresaren asmoa datu hauek ematea besterik ez zen arren, bizi dugun egoerak bultzatuta sindikatuok azken bileran (uztailak 2) eta harrezkero azken asteetan idatziz luzatu hausnarketa eta proposamenak berretsi genizkien enpresako arduradunei. Erantzuna eman beharrean, enpresak ahoan duen kontu bakarra hau da: aurrekontuak baldintzatu egiten gaitu eta, dagoeneko, ez dugu betetzen; ondorioz, ezin ditugu baliabideak handitu zuek eskatzen duzuen bezala.

Sindikatuok, gure aldetik, enpresaren posizioa zein zen ikusita, esleipenak prestatzeko irizpideen inguruko negoziazioa eta kontingentzia planaren gaineko hausnarketa (ditugun baliabide pertsonalen egokitzapena kontingentzia planera) behar-beharrezkoak direla azpimarratu genuen batez ere. Izan ere, enpresak alde bakarrez aurkeztutako datu batzuk jasotzea ez da sindikatuokin ezer negoziatzea.

Datuen azterketa egin ostean, atentzioa ematen duen lehen datua hau da: iaz baino 1000 haur gutxiagorekin hasiko dugu ikasturtea (datuak egunero aldatzen omen dira, enpresaren hitzetan). Datu hau aipatuta, benetan larria, enpresak bizi dugun egoerari bota nahi zion errua, baina sindikatuok argi utzi genion ezin zuela kontu honekin tranparik egin eta enpresari komeni zaion gainazaleko irakurketa soil bat egin: bestelako zentro pribatuek matrikulazioa aurrera zeramaten bitartean, gurea inoiz baino gehiago atzeratzeaz gain, ez zuten inolako matrikulazio kanpainarik egin.

Gauzak horrela, eta datuak egunero aldatzen direla kontuan izanda, behin-behineko datuen azterketa azkar batek zera erakusten digu, aldi berean: desoreka handia dagoela momentu honetan eskaini daitezkeen mugimenduen eta mugituak izan daitezkeen hezitzaile kopuruaren artean. Momentu honetan, 149 hezitzaile gara mugitu gaitzkeenak, eta 55 mugimendu aurreikusten dituzte. Hau da, 94 hezitzailek ez lukete izango nora mugitu. Gainera, kontuan izan behar dugu, berez, azaroan izango den haur kopurua erabili duela enpresak taula hauek prestatzeko. Beraz, ulertu behar dugu iraileko egoera are desorekatuagoa dela.

Eztabaidak eztabaida, enpresak momentu batean desoreka hori kudeatzeko bere asmoa adierazi zigun. Alegia, enpresaren ustez eta bere irizpideen arabera, mugitu ezin dituen hezitzaile horiek erabiltzea irailetik aurrera suertatuko diren ordezkapenak betetzen joateko. Asmo honen kontura eztabaidatzen egon eta gero, enpresak Ordezkoen Araudia egoera berrira moldatu beharra aztertu eta baloratu beharko dela aipatu zuen baita ere. Honen aurrean, sindikatuok gure ardura eta ezinegona adierazi genien enpresako ordezkari.

Hala ere, enpresak datuak ahalik eta gehien orekatzeko saiakera egiten ari dela adierazi zigun, eta horretarako lanean dihardutela. Askotan errepikatu zigun matrikulazio datuak berritzen ari direla ia egunero. Abuztu bukaerara zein iraila hasierara nola iritsiko garen ikusi beharko dugu, ordea.

Hizketaldi antzu luze bat eta gero, eta ikusita ez ginela enpresarekin inolako akordio batera iritsiko, bestelako gai batzuk jorratu genituen bilera bukatzeko:

- Esleipen prozesua on-line izango da (nola egingo den jakinaraziko dute deialdiarekin batera).
- Desplazatuak izango diren hezitzaileek murrizketak eskatu ahal izateko 5 eguneko epea izango dute (mugimendua jakinarazten zaien momentutik).
- 2019-2020 ikasturteko baremazio-birbaremazio prozesu osteko gorako helegiteen emaitzak hilaren 28an publikatuko dira enpresaren web gunean (interesatuek ere ebazpena jasoko dute).

2020ko esleipen prozesuaren egutegia zein izango den gogora ekarri nahi dugu:

NOIZ	ZER
<b>Abuztuak 25</b>	<b>Deialdia</b> argitaratu Behin-behineko <b>1. zerrendak</b> (mugimenduak, mugituak)
<b>Abuztuak 26</b>	<b>Ukoak eta borondatezko eskaerak</b>
<b>Abuztuak 27</b>	Hautagaien <b>2. behin-behineko</b> zerrenda
<b>Abuztuak 28</b>	Hautagaien zerrendari <b>erreklamazioa</b> jartzeko eguna
<b>Abuztuak 31</b>	<b>Behin-betiko zerrendak</b> (mugimenduak eta mugituak)
<b>Irailak 1</b>	<b>ESLEIPEN EGUNA</b> (on-line)

Egoeraren larritasuna ulertzeko, ostiralean izandako bileran Haurreskolak Partzuergoko gerenteak esandako esaldi batekin bukatuko dugu idatzi hau: "Ikasturte hasiera konplexua izango da".

Baieztapen horren aurrean, **STEILAS** sindikatutik langileon eskubideen alde gure esku dagoen guztia egiten saiatuko garela adierazi nahi dizuegu.

Euskal Herrian, 2020ko uztailaren 28an.

